

1. Baieztapen hauetatik, zein da zuzena (Oidui Usabiaga, 2006)?
 - a) Pilota-eskola baten lehen helburua heziketa da,
 - b) Heziketa eta errendimendua kontrajarrita daude.
 - c) Errendimendua eta heziketa ez daude kontrajarrita.
 - d) Denak dira zuzenak.

2. Zein da pilota-eskola baten helburua (Iñigo Gallaga, 2006)?
 - a) Ikastea eta aurrera egitea.
 - b) Ondo pasatzea.
 - c) Elementu teknikoak eta gaitasun taktikoak eskuratzea.
 - d) Aurreko guztiak.

3. Askotan esaten dugu pilota-eskola batean ibiltzea ona dela ohitura osasuntsuak hartzeko; onura hori nolakoa da?
 - a) Psikologikoa.
 - b) Kiroletarako balio du.
 - c) Fisikoa.
 - d) Soziala.

4. Askotan esaten dugu pilota-eskola batean ibiltzea ona dela ikasten delako nola lan egin taldean, nola jardun lankidetzan, nola komunikatu, partekatu edo antzeko beste trebezia batzuk; onura hori nolakoa da?
 - a) Psikologikoa.
 - b) Kiroletarako balio du.
 - c) Fisikoa.
 - d) Soziala.

5. Pilota-eskolan dabiltzan neska-mutikoentzat, euskal pilotan egitea aukera paregabea da... zertarako?
 - a. Pilotari gisa prestatzeko.
 - b. Pertsona gisa edukatzeko.
 - c. Aurrekoetako bat ere ez.
 - d. a) eta b)

6. Pilota-eskolan, begiraleen lan-estiloak baditu ezaugarri batzuk. Hauetako zein **EZ**?
 - a) Ez dituzte imitatu behar errendimendu- edo profesional-taldeetan arrakasta izan duten entrenatzaileak.
 - b) Jakin behar dute prestakuntza-prozesuan normala dela akatsak egitea.
 - c) Entrenamendu-taldeak zer dezakeen ikusi, eta taldeko pilotari orori halakoxe ahalegina eta errendimendua eskatzea, bakoitzak zer maila duen eta zer dezakeen begiratu gabe.
 - d) Portaera-eredua izatea.

7. Pilota-eskolako begiraleen motibazioak zer oinarri izan behar luke?
- a) Ea pilotariak hasten diren “kolpea hartzen”.
 - b) Barrutiko lehiaketan gero eta partida gehiago irabaztea.
 - c) Soldata.
 - d) Pilotari bakoitzak pixkanaka-pixkanaka gauza txiki batzuk nola hobetzen dituen ikustea.
8. Denboraldi hasieran, pilota-eskolako familiekin bilera egin behar izaten da (komeni baita). Gai hauetatik zein **EZ** zenuke sartuko bilera horretako gai-zerrendan?
- a. Entrenamenduen eta lehiaketen ordutegiak eta egutegia.
 - b. Zer kirol-emaitza lortuko dituzuen barrutiko txapelketetan, probintziako eskolarteko txapelketan eta pilota-eskolak ondoko herriko eskolaren aurka antolatutako txapelketan.
 - c. Eskolaren filosofia eta eskolako begirale arduradunen prestakuntza.
 - d. Zer oinarri behar diren harreman ona edukitzeko begiraleen eta familien artean.
9. Pilota-klubari zertarako gomendatzen zaio banku-kontu agerikoa edukitzea?
- a) Ordainketak egiteko.
 - b) Kontabilitatea argi eta erraz eramateko.
 - c) Kobrantzak jasotzeko.
 - d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.
10. Pilotari batzuekin, baliteke beharrezkoa eta onuragarria izatea “arrakasta” autokontzeptuarekin eta autoestimuekin lotzea. Nolako pilotariekin? (batzuekin bakarrik, besteekin jada ez da komeni, ondorio txarrak izan ditzake-eta)
- a) Arrakastaren mende dabiltzan pilotariekin.
 - b) Autoestimua eskasa duten pilotariekin.
 - c) Puntan dabiltzan pilotariekin.
 - d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

PRAKTIKA: AUTOESTIMUA ETA AUTOKONTZEPTUA

- Pilotako begiralea zara. Kimu-kategoriako talde batean, ikusi duzu alde handiak daudela pilotarien artean. Zer arazo egon daiteke pilotarien autoestimua eta autokontzeptuaren garapenean? Eta, horrelako arazorik gertatzen bada, zer egingo duzu?

PRAKTIKA: BALIO PERTSONALAK ETA SOZIALAK

- Ume-talde batean ari zara begirale-lanetan (infantilak). Ikusi duzu ume batzuek entrenamenduetara kale egiteko ohitura hartu dutela euria eta hotza egiten duenean. Zer egin dezakezu egoera hori bideratzeko?
- 10 pilotari benjamin dituzu, eta hiru, normalean, berandu iristen dira entrenamenduetara. Elkarrekin iristen dira, “ezer gertatuko ez balitz bezala”. Zer egingo zenuke?
- Batzuetan, taldeak bitan banatu behar du, egutegiko jolas-dinamikak egiteko. Halakoetan, ikusi duzu eskasen dabilzan pilotariei garrantzi gutxieneko posizioetan parte hartzea egokitzen zaiela beti. Kirolean hobeto dabilzaneiei, gainera, ez zaie gustatzen ariketak besteekin egitea, eta, onenak elkarrekin jartzen ez badituzu, muturtu egiten dira, zuk ikusteko moduan. Zer egin dezakegu?
- Ume-talde batean ari zara begirale. Talde barruan nork bere ardurak hartu behar dituela irakastarren, lantxo batzuk jarri nahi dizkiezu, entrenamenduak, ekipamendua, materiala eta aldagelak baliatuz. Zehatz-mehaz zer lantxo?
- Nahiko gure gure pilota-eskolako kimuek porrotak eta garaipenak oreka galdu gabe onartzen ikastea; irabazi edo galdu, lehiaketatik zer edo zer ikastea. Zer egin dezakegu irabazten dutenean eta zer galtzen dutenean?

IRABAZTEN DUTENEAN	GALTZEN DUTENEAN

PRAKTIKA: BEGIRALEEN LAN-ESTILOA

- Azkenaldian, pilota-eskolako begiralea entrenamenduetara berandu ari da iristen. Umeak iritsi ahala, pilotalekuko arduradunak pilotak banatzen dizkie, eta hori ere badaki. Frontoira iristen denean, arduradunarekin berriketalditxo bat izaten du, lagunak baitira klubeko senior entrenamendu-taldean. Berriketan ari diren bitartean, beti hurbiltzen da pilotariren bat edo beste, entrenamenduan zer egingo galdezka, eta esaten dio hasteko

putxe bat jolasten. Putxea amaitzen dutenean, begiraleak bi ariketa planteatzen ditu, baina biak ere entrenamendu-talde guztietan egin ohi dituenak, eta oso errazak pilotarientzat. Ondoren, partidaxka batzuk antolatzen ditu, eta han egoten da, mugikorrarekin denborapasa, harik eta entrenamendua amaitu arte. Begiralearen jarrera horrek zer ondorio izan ditzake pilotari-taldean? Zer aldatu beharko luke? Zergatik?